

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

6767

558/2012 FORU AGINDUA, abenduaren 3koa. Honen bidez, onartu egiten da Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia.

Azken urteotan, Araban kontrolik gabe izan diren sute gehien atzean nekazaritza jarduera eta, batez ere, nekazaritza hondakinen erretze lanak egon dira, hain zuzen, uzta hondakinenak, mahatso edo olibondoen inausketetako hondakinenak, lasto fardoena edo nekazaritzako beste landare hondakinenak.

Jarduera horrekin lotuta, ohikoa izaten da, nahita edo nahi gabe, nekazaritza finen aldameneko baso landaretza erretzea: belar eta zuhaixka espezieak, eta zenbaitetan baita zuhaitzak ere.

Premiazkoa da nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia ezartzea, baimenen izapideak erraztuz, lanen kontrol handiagoa lortu eta arrazoi horregatik piztutako baso suteak gutxituko dituen.

Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak honakoa dio 3.3 artikuluan: "Mendirako eta gaur egungo edo balizko lurzoru eta landare estaldurak kontserbatzeko balizko arrisku objektiboa den aldetik, mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailari dagokio mota guztietako landa lurretan sua erabiltzeari buruzko kontrola, hori erabiltzeko aurreko administrazio baimena izan beharko dela".

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak eta Miñoien Atalak idatzitako txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Onartzea Arabako Lurralde Historikoko mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzeari buruzko araudia.

I. NEKAZARITZA HONDAKINAK ERRETZEKO ARAU OROKORRAK.

1. artikulua.- Foru agindu honek mota guztietako landa lurretako nekazaritza hondakinen erretze lanak arautzen ditu, uzta hondakinenak, mahatso edo olibondoen inausketetako hondakinenak, lasto fardoena edo nekazaritzako beste landare hondakinenak barne hartuta. Ez ditu arautzen nekazaritza lurretako erretze lan estentsiboak, ezta baso hondakinen erretze lanak ere.

2. artikulua.- Guztiz debekatuta dago mota guztietako landa lurretan nekazaritza hondakinak erretzea, baldin eta mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailak horretarako baimena eman ez badu eta foru agindu honetan adierazitako prozedura eta baldintzak betetzen ez badira.

3. artikulua.- Ez da nekazaritza hondakinak erretzeko baimenik emango, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 65. artikulua araberan, arrazoi klimatikoak edo bestelako arrazoi justifikatuak direla eta, landa ingurunean aldi baterako sua egitea debekatu den aldietan.

4. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuan ezarritakoa betez, belarki laboreen uzta hondarrak eta zurezko laboreen inausketa hondarrak deuseztatzeko, ezarritako arauak bete beharko dira beti.

Aurreko lerroaldean jasotako baldintzetara lotuta dauden laguntzei heldutako finketan erretze lanak egiten badira, baina ez badute foru agindu honen II. idatz zatian adierazitako prozeduraren araberan egoki den administrazio baimena eskuratu, laguntzen zenbatekoa murriztu egin daiteke.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

6767

ORDEN FORAL 558/2012, de 3 de diciembre que aprueba la normativa reguladora de las quemas de residuos agrícolas, en toda clase de terrenos rústicos del Territorio Histórico de Álava.

Dado que en los últimos años el mayor porcentaje de fuegos no controlados de Álava tiene su origen en la actividad agrícola y principalmente en las quemas de residuos agrícolas consistentes en restos de cosecha, restos de poda de vid u olivo, fardos de paja u otros restos vegetales agrícolas.

Dado que es habitual que unida a esta actividad se quemem voluntaria o involuntariamente vegetación forestal adyacente a las fincas agrícolas, tanto especies herbáceas y arbustivas como en ocasiones arbóreas.

Dado que se hace necesaria una regulación de la quema de residuos agrícolas que, simplificando los trámites de autorización, consiga un mayor control de estas actuaciones y redunde en una disminución de los incendios forestales originados por esta práctica.

Dado que la Norma Foral 11/2007, de Montes, de 26 de marzo, establezca en su artículo 3.3 que en cuanto supone un riesgo potencial objetivo para el monte y la conservación de los suelos y cubiertas vegetales actuales o potenciales, corresponde al Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral de Álava el control sobre el uso y manejo del fuego en toda clase de terrenos rústicos, cuya utilización requerirá autorización administrativa previa.

Vistos los informes emitidos por la Dirección de Agricultura, la Dirección de Obras Públicas y Transportes y la Sección de Miñones de la Diputación Foral de Álava

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen

DISPONGO

Aprobar la normativa reguladora de las quemas de residuos agrícolas, en toda clase de terrenos rústicos del Territorio Histórico de Álava.

I. NORMAS GENERALES PARA LA QUEMA DE RESIDUOS AGRÍCOLAS.

Artículo 1.- Esta Orden Foral regula la quema de residuos agrícolas en toda clase de terrenos rústicos, incluyendo la quema de restos de cosecha, restos de poda de vid u olivo, fardos de paja u otros restos vegetales agrícolas. No regula las quemas extensivas en terrenos agrícolas ni las quemas de residuos forestales.

Artículo 2.- Queda totalmente prohibida en toda clase de terrenos rústicos la quema de residuos agrícolas sin la debida autorización del Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral de Álava, y con sujeción al procedimiento y condiciones que se señalan en la presente Orden Foral.

Artículo 3.- No se autorizará ningún tipo de quema de residuos agrícolas en los períodos en que por razones climáticas u otras causas justificadas reglamentariamente se prohíba temporalmente el uso del fuego en el medio rural en virtud del artículo 65 de la Norma Foral 11/2007, de Montes.

Artículo 4.- En cumplimiento de lo establecido en el Decreto 79/2010, de 2 de marzo, sobre la aplicación de la condicionalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la eliminación de restos de cosecha de cultivos herbáceos y de restos de poda de cultivos leñosos deberá realizarse siempre con arreglo a la normativa establecida.

Toda quema en fincas acogidas a las ayudas sujetas a condicionalidad recogida en el párrafo anterior que se realice sin la correspondiente autorización administrativa de acuerdo al procedimiento recogido en el apartado II de esta Orden Foral, podrá estar sujeta a la correspondiente reducción del importe de los pagos de dichas ayudas.

5. artikulua.- Uzta hondakinak, ahienak edo bestelako landare hondakinak lur elkorretan edo ahalik eta landare gutxien ditzutenetan pilatuko dira, leku bizigabeen ondoan. Pilatutako materiala landaretza espontanea edo landatutako landaretza dagoen lekuetatik aparte utziko da, sua horra heltzea ekiditeko.

Ezin izango da pilatu nekazaritza hondakinak (uzta hondakinak, ahienak eta bestelako landare hondakinak) zuhaitzietatik, ezpondetatik, hesietatik eta landaretza natural espontaneoko ibar basoetatik 10 metro baino gutxiagora.

6. artikulua.- Ez da erretze lanik egingo egunsentia baino lehen, eta, lasto piloen erretze lanetan izan ezik, egun bereko ilunabarra baino ordubete lehenago amaituta egon beharko dira. Normalean, erretze lana egunaren lehen orduan egingo da.

Larunbatetan eta jaiegunetan ezingo da erretze lanik egin.

7. artikulua.- Baimendutako erretze lanak ez dira sekula egingo haize bolada gogorak edo hego haizea (solanoa, sargoria edo Gaztela haizea) dagoen egunetan, ezta tenperatura altua dagoenean edo sutea pizteko arriskua dakarten beste egoera batzuk ematen direnean ere.

Behin erretze lanak hasita, eguraldi aldaketagatik edo beste arriskuren batengatik lanak gelditzea komeni bada, sua berehala itzaliko da.

Basozainek, segurtasun arrazoiak direla eta, eguerdirako baimendu diren erretze lanak eten ahal izango dituzte. Halaber, zenbait erretze lanetarako ordutegi jakin bat ezar dezakete, baldin eta lanaren ezaugarriek (lekua, arriskua edo baldintzak) hala gomendatzen badute.

8. artikulua.- Erretze lanak egiten diren bitartean, kontu handiz jokatu da, nahikoa langilerekin eta suteen kontrako material egokiarekin. Horrez gain, suaren bilakaera zaindu beharko da bere hedapena ekiditeko, eta ezingo da lursailetik joan sua guztiz itzali arte.

Inguruan zuhaitziak badaude, hartuko diren neurriak are zorrotzagoak izango dira.

9. artikulua.- Baimenaren titularraren ardura izango da araudi hau eta foru agintaritza eskudunak xedatutako gainerako antolaketa eta funtzionamendu jarraibideak betetzea. Horrez gain, erretze lana kontrolatuko du; gainera, sutea hedatuz gero, horrek eragindako kalteen erantzule izango da.

10. artikulua.- Erretze lana baimendu ondoren eta lanari ekin aurretik, jardun gunearen basozain arduradunak ados dagoela adierazi beharko du espresuki. Basozaina, ingurumen baldintzen arabera, erretze lanaren aurka ere ager daiteke. Era berean, Miñoi Zerbitzua (tel.: 945 181818) jakinaren gainean jarri behar da, eta komeni da lur funtsen mugakideei jakinaraztea, funsgabeko alarmak saihesteko eta erretze lana hobeto kontrolatzeko.

11. artikulua.- Ezin izango da lastategirik jarri zuhaitzietatik 50 metro baino gutxiagora. Banda perimetral bat landuko da, gutxienez lastategiaren altueraren bikoitza izango dena. Horretarako, 10 egun izango dira, fardoak pilatzeari ekin zaionetik edo, hala badagokio, kasuan kasuko lurzatian uzta biltzen denetik kontatzen hasita.

Lasto fardoak (lastategiak) Foru Sareko errepideen eraikuntza lerroa errespetatuz pilatuko dira, Errepideei buruzko 20/1990 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarri zena. Hori horrela, errepide aruntetan, galtzadaren kanpoko ertzetik 25 metrora jarriko dira; autopista eta autobideetan, galtzadaren kanpoko ertzetik 50 metrora; eta saihesbideetan, galtzadaren kanpoko ertzetik 100 metrora.

12. artikulua.- Komunikazio bideetatik gertu erretze lanak egiten badira, kea galtzadara iritsi eta ibilgailuek istripuak izan ditzakete. Horregatik, haizeak galtzada aldera jotzen duenean, debekatuta dago erretze lanak egitea segurtasun bandetan. Segurtasun banda hori, autopista, autobide eta lehentasunezko zein oinarritzko sareetako errepideen kasuan, zapalunearen kanpoko ertzetik 100 metrora egongo da; eskualdeko, tokiko eta auzoko errepideetan, aldiz, zapalunearen kanpoko ertzetik 50 metrora.

Artículo 5.- Los restos de cosecha, sarmientos u otros residuos vegetales se acopiarán en zonas estériles o lo más desprovistas de vegetación posible, junto a lugares inertes y los acopios se aislarán convenientemente de las zonas de vegetación contigua espontánea o plantada, de tal manera que se evite la propagación del fuego a las mismas.

En todo caso, se prohíbe la acumulación de restos agrícolas (restos de cosecha, sarmientos u otros residuos vegetales) a menos de 10 metros de zonas arboladas, ribazos, setos o sotos con vegetación natural espontánea.

Artículo 6.- No se iniciará la quema antes de la salida del sol y, a excepción de la quema de pajeras, deberá estar finalizada una hora antes del ocaso del mismo día. Con carácter general la quema se iniciará a primera hora del día.

Queda prohibida la quema en sábados y días festivos

Artículo 7.- Las operaciones de fuego autorizadas nunca se harán en días de vientos fuertes o de componente sur (solano, bochorno o castellano), cuando la temperatura ambiente resulte elevada o cuando se den otras circunstancias que provoquen riesgo de incendio.

Una vez iniciadas las quemas, si el cambio de condiciones meteorológicas o la existencia de algún peligro aconsejara detenerlas, se procederá a extinguir el fuego inmediatamente

Por razones de seguridad, la guardería forestal podrá suspender las operaciones de fuego autorizadas durante las horas centrales del día, pudiendo asimismo marcar un horario para determinadas quemas que por su ubicación, riesgo o condiciones así lo aconseje.

Artículo 8.- Durante la quema deberán extremarse las precauciones, contando con personal suficiente y material contra incendios idóneo, vigilando la evolución del fuego para evitar su propagación, sin que pueda abandonarse el terreno hasta su total extinción.

Caso de existir en las proximidades zona arbolada, los cuidados que se adopten serán más rigurosos.

Artículo 9.- La persona titular de la autorización será responsable del cumplimiento de la presente normativa y demás pautas de organización y funcionamiento que marque la autoridad foral competente. Igualmente, será responsable del control de la quema y de los daños que ocasione su propagación.

Artículo 10.- Una vez autorizada la quema y antes de su inicio deberá contar con la conformidad expresa de la Guardería Forestal a cuyo cargo se encuentre la zona de actuación, quien en función de las condiciones ambientales podrá denegar la misma. Asimismo, se deberá avisar al Servicio de Miñones (teléfono 945 181818) y se recomienda avisar a los colindantes del predio para evitar infundadas alarmas y mejor control de la operación.

Artículo 11.- No podrán instalarse pajeras a menos de 50 metros de masas arboladas. Deberá labrarse una banda perimetral, al menos igual al doble de la altura de la pajera, en un plazo de 10 días a contar desde el momento en que se empiecen a apilar las pacas o, en su caso, desde el momento de la cosecha de la parcela en cuestión.

La instalación de acopios de fardos de paja (pajeras) deberá respetar la línea de edificación de las carreteras de la Red Foral establecida en el artículo 42 de la Norma Foral 20/1990 de Carreteras, que se establece a 25 metros de la arista exterior de la calzada en carreteras convencionales, a 50 metros de la arista exterior de la calzada en autopistas y autovías y a 100 metros de la arista exterior de la calzada en carreteras de circunvalación de poblaciones.

Artículo 12.- Dado el riesgo de accidente para el tráfico rodado que supone la realización de quemas en las proximidades de las vías de comunicación por la invasión por humo de la calzada, se prohíbe la ejecución de quemas cuando el viento sople hacia la calzada en las franjas de seguridad, que serán de 100 metros contados desde la arista exterior de la explanación en las autopistas y autovías, las carreteras de la Red de Interés Preferente y las carreteras de la Red Básica y de 50 metros contados desde la arista exterior de la explanación en las carreteras comarcales, locales y vecinales.

II.- ERRETZE LANETARAKO BAIMENA ESKATZEKO PROZEDURA.

13. artikulua.- Mota guztietako landa lurretan mahatsondoen inausketetako hondakinak (ahienak) edo olibondoenak erretzeko baimenak honela eskatuko dira: I. eranskineko eskaera orria, kopia papera duen eredu, beteta. Eskaera orria Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo xede horretarako lankidetzak hitzarmena sinatu duten udaletako egoitzetan aurkeztu ahalgo da, edo, bestela, guneko basozainari zuzenean entregatuko zaio.

Guneko basozainak erretze lana baimendu edo ukatu dezake; horretarako, eskaera egiteko erabili den eredu, kopia papera duena, beteko du. Eredu horren jatorrizko orria eskatzailearentzat izango da.

14. artikulua.- Baimenak 30 eguneko indarraldia izango du, ematen den egunetik kontatzen hasita.

Mahatsondo eta olibondoen inausketetako hondakinak abenduaren 15etik martxoaren 15era erre ahalgo dira.

15. artikulua.- Mota guztietako landa lurretan nekazaritzako bestelako landare hondakinak (aparte utzita mahatsondo edo olibondoen inausketetako hondakinak) erretzeko eskaerak egiteko, mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailari idazkia aurkeztu behar zaio, II. eranskinean jasotako eredu normalizatua erabiliz. Eredu horrek foru agindu honetan ageri ez diren landa lurretako gainerako erretze lanetarako ere balioko du.

16. artikulua.- Foru agindu honen arabera ematen diren baimen orokorrak independenteak dira aplikatzekoak diren beste araudi batzuetan eskatzen direnekiko.

17. artikulua.- Mendien arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiaren sailak, arrazoi klimatikoak edo bestelako arrazoi justifikatuak direla eta, landa ingurunean sua egitea debekatu dezake aldi baterako, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 65. artikulua arabera. Aldi horietan, balio gabetuta geratuko dira foru agindu honetaz baliatuz emandako baimenak.

III. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

18. artikulua.- Foru agindu honetan jasotako arauak ez badira betetzen, zehapenak ezarriko dira Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan xedatutako arabera. Dena den, horrek ez du eragotziko arlo horri buruz Zigor Kodeak aurreikusita dituen aplikatzea.

19. artikulua.- Aipatutako araudia aplikatzearen ondorioz ezartzen diren zehapenak independenteak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuan jasotako baldintzak ez betetzeagatik aplikatu ahal diren laguntzen zenbatekoen murrizketekiko.

AZKEN XEDAPENA.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 3a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.- Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.

II.- PROCEDIMIENTO PARA SOLICITAR LA AUTORIZACIÓN DE QUEMA

Artículo 13.- Las solicitudes de autorización de quema en toda clase de terrenos rústicos de restos de poda de vid (sarmientos) o de olivo (oliveñas) se efectuarán mediante la cumplimentación de un modelo autocopiativo de solicitud de autorización (Anexo I), que se podrá presentar en la Oficina Comarcal Agraria correspondiente, en aquellos ayuntamientos con los que su suscriba un acuerdo de colaboración al respecto o directamente ante el/la guarda forestal de la zona.

La guardería Forestal de la zona autorizará o no la solicitud de quema, a través del modelo autocopiativo de solicitud, quedando el original de dicho modelo en poder del solicitante.

Artículo 14.- El plazo de validez de estas autorizaciones es de 30 días naturales a contar de su expedición.

La quema de restos de poda de vid y de olivo podrá realizarse en el período comprendido entre el 15 de diciembre y el 15 de marzo.

Artículo 15.- Las solicitudes de autorización en toda clase de terreno rústico de quema de otros residuos agrícolas (excluidos los restos de poda de vid o de olivo) se formalizarán mediante escrito dirigido al Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral de Álava, según modelo normalizado que figura en Anexo II. Este modelo será válido igualmente para el resto de quemas en terreno rústico no recogidas en la presente Orden Foral.

Artículo 16.- Las autorizaciones generales que se otorgan de conformidad con la presente Orden Foral son independientes de cualesquiera otras que sean exigibles por el resto de la normativa de aplicación.

Artículo 17.- El Departamento competente en materia de montes de la Diputación Foral de Álava, por razones climáticas u otras causas justificadas podrá prohibir temporalmente el uso del fuego en el medio rural, en virtud del artículo 65 de la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes. En dichos periodos quedarán sin efecto las autorizaciones emitidas en virtud de la presente Orden Foral.

III. INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 18.- Sin perjuicio de la aplicación de las previsiones del Código Penal en esta materia, el incumplimiento de las Normas contenidas en la presente Orden Foral será sancionado conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes.

Artículo 19.- Las sanciones que se impongan por aplicación de la normativa antes citada serán independientes de la reducción de ayudas, si fuera el caso, por incumplimiento de los requisitos establecidos en el Decreto 79/2010, de 2 de marzo, sobre la aplicación de la condicionalidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2012.- La diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.- La directora de Medio Ambiente y Urbanismo, BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA.



Ingurumen eta Hirigintza Saila
Departamento de Medio Ambiente
y Urbanismo

Mendi Zerbitzua
Servicio de Montes

I. ERASKINA / ANEXO I

**MAHATSONDO EDO OLIBONDOEN INAUSKETETAKO HONDAKINAK ERRETZEKO BAIMENA
AUTORIZACIÓN DE QUEMA DE RESTOS DE PODA DE VID O DE OLIVO**

Eskatzailearen izen-abizenak Nombre y apellidos del/de la solicitante			
Helbidea Dirección		NAN DNI	
Herria Localidad		P. K. C. P.	Tel.

Hondakinak erretzeari buruzko datuak / Datos de la quema

Udala Ayuntamiento	Herria Localidad	Poligono zk. Nº poligono	Lurzati zk. Nº parcela	Mahatsondoa Olibondoa Vid / Olivo	Distantzia zuhaitzi, ezponda, ibar baso edo zuhaixketara Distancia a arbolado, ribazo, soto o vegetación arbustiva

Segurtasun neurriak Medidas de seguridad	
Beste arrisku batzuk Otros riesgos	

Baimen honen indarra 30 eguneko
izango da, ematen denetik kontatzen hasita
eta atzealdeko baldintzek mugatuta.

El plazo de validez de esta autorización es de
30 días naturales a contar desde su
expedición, sujeto al condicionado de la parte
posterior.

(Tokia eta data / Lugar y fecha)

(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El/La solicitante

BAIMENTZEN DU / AUTORIZA
Basozaina / El/La guarda forestal



Ingurumen eta Hirigintza Saila
Departamento de Medio Ambiente
y Urbanismo

Mendi Zerbitzua
Servicio de Montes

II. ERASKINA / ANEXO II

**ERRETZE LANETARAKO BAIMEN ESKAERA
SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN DE QUEMA**

Eskatzailearen izen-abizenak Nombre y apellidos del/de la solicitante			
Helbidea Dirección		NAN DNI	
Herria Localidad	P. K. C. P.	Tel.	

Lur mota / Tipo de terreno

<input type="checkbox"/> Basoa Terreno forestal	<input type="checkbox"/> Luberriak Roturaciones	<input type="checkbox"/> Nekazaritzako lurra Terreno agrícola	<input type="checkbox"/> Beste batzuk Otros _____
---	---	---	---

Lurzatiaren datuak / Datos de las parcelas

1)	Poligono zk. Nº poligono	Lurzati zk. Nº parcela		2)	Poligono zk. Nº poligono	Lurzati zk. Nº parcela	
3)	Poligono zk. Nº poligono	Lurzati zk. Nº parcela		4)	Poligono zk. Nº poligono	Lurzati zk. Nº parcela	

Udala Ayuntamiento		Herria Localidad	
Dermioa(k) Término(s)			
Azalera Superficie		Luzera Longitud	

Erretze lanaren deskribapena Descripción de la quema	
Arrazoiak Motivo	
Segurtasun neurriak Medidas de seguridad	

(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Eskatzailea / El/La solicitante